

## **EGIAKO SANEAMENDU OBREN GAINEKO KONTROL MOZIOA**

EH BILDU udal taldeko zinegotzi Olaia Duarte Lopezek, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udaltzari, Gune Publikoen Batzordeak 2017ko urriaren 16an izan zuen bileran Egiako saneamendu obrak direla eta egindako interpelazioaren ondorioz.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Gobernu Batzarrak 2016ko irailaren 27an izan zuen bileran, Egiako auzoko parte bateko saneamendu eta drainatze sistemak berritzeko obrak emateko espedientea onartzea erabaki zuen, eta 12 hilabetean egitea obrak. Obrak AQUAMBIENTE, S.A.U. enpresari eman zitzaizkion 1.119.199,43 euroan.

2017ko urrian, prentsa idatziaren bidez, jakin genuen gelditu egin zituztela saneamendu eta drainatze obra horiek. Ordezkariek egin zituen adierazpenetan, esan zuen beste proiektu bat idatzi behar zela, izateari estuago lotua eta inguru hartako trafikoari hainbeste erasango ez ziona.

2017ko urrian izan ziren batzordeetan, ordezkariek berriz esan zuen beste teknika bat aztertzea planteatu zutela, batez ere Karmengo Andre Mariaren kalerako, trafiko handia duen kalea delako hura. Hil hartan bertan, prentsan egindako adierazpen batzuen bidez, Udal Gobernuak iragarri zuen hilabete eta erdian eginda izango zela azterketa, eta 2018ko udaberrirako bukatuta izan zitezkeela obrak.

Iritsi gara 2018ko martxora eta egiatarrek galdetzen dute ea noiz helduko dieten berriz ere obrei, geldi segitzen dutela eta.

Hori dela eta, hauxe da nire KONTROL MOZIOA:

- 1.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari zehazteko Egiako saneamendu obrak egiteko epeak, orain geldi daudela eta.
- 2.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari epe horien berri emateko bizilagunei.

Donostian, 2018ko otsailaren 16an

Olaia Duarte Lopez,

EH Bildu udal taldeko zinegotzia.